

«Lasai noa, nire eskuetan zegoen guztia egin dut»



IKER ELIZEGI PILOTARIA

Laur urte eta erdi profesional mailan aritu eta gero, asteasuarrak larunbatean jokatu du azken partida Baiko Pilotarekin, Tolosako Beotibarren // 6

Gipuzkoako bertso eskolen eguna, igandean, Alegian

10 eta 14 urte bitarteko 160 gazte elkartuko dira, eta egun osoko egitaraua izango dute; goizean Gelatik Plazara ekimena izango dute, eta bazkaldu ostean, bertsolaritza tailerra // 5



JOSU ARTUTXA

«Langile bat soberan zegoenaren aitzakia ez zen existitzen»

ENEKO BLANCO, ISIDORO SISTIAGA ETA IXA PELLUS AUTOBUS GIDARIAK

CuadraBus enpresak Ixa Pellus autobus gidaria kaleratu zuen sindikatura jo ondoren; ostiralean izango du epaiketa, eta aurretik, bihar, Hiribus zerbitzuko langileek Tolosako Udalean mozioa aurkezteko asmoa dute // 2-3



TXINDOKIrent

KONPONBIDEAK ALOKATUZ / ZERBITZUAK SALDUZ
Makineriaren alokairua eta salmenta

alquilerestxindoki.com

943 070 700

Altune, 4 D-E, 20212 OLABERRIA

Lurra leundu, gastatu, garbitu edo lixatzeko makinak



«CuadraBusek kalitatezko zerbitzua bermatu behar du Tolosan»

**ENEKO BLANCO, ISIDORO SISTIAGA
ETA IXA PELLUS
AUTOBUS GIDARIAK**

CuadraBus enpresak kaleratu zuen Ixa Pellus autobus gidariak epaiketa du ostiralean; aurrez, Hiribus zerbitzuko langileek, mozio bat aurkeztu nahi dute, bihar, udaletxean



J.A.D.

Josu Artutxa Dorronsoro

CuadraBus enpresak 2024ko irailean kaleratu zuen Ixa Pellus autobus gidaria; Tolosako Hiribus zerbitzuan lan egiten zuen, eta ostiralean du epaiketa. Bera kaleratzean, Isidoro Sistiaga eta Eneko Blanco gidariak baja hartu zuten, «gehiagizko lan kargaren ondoriozko estresagatik». Bihar, mozioa aurkezteko asmoa dute Tolosako udaletxean, martxo osoko bilkuran.

Ixa, azalpen eske sindikatura jo, eta kaleratu egin zintuzten. Zergertatu zen?

Ixa Pellus: Irail hasieran izan zen. Ni Hiribusean ari nintzen lanean, eta ordutegi arrunta nuen; erreleboka aritzen ginen, astero txandakatuz. Ikasturtea hastearekin batera, baina, zerbitzua areagotzeko ardura hartu zuen enpresak, bai Donostian, baita Tolosan ere, ikastetxeetako autobus zerbitzua gehituz, eta hori guk egin behar genuela esan zuen. Egoera jasanezina zen. 15 orduz aritzen ginen lanean; lo egiteko ere ez genuen ia astirik.

Orduan, enpresarekin harre-

manetan jarri nintzen, ea gidari falta zegoen jakiteko. Ezetz erantzun zidaten; horrela moldatu behar genuela, eta ikasturte osorako. Ez zuen inolako zentzurik. Lankide batekin hitz egin nuen, eta sindikatura joatea erabaki genuen, informazio bila. Handik lau egunetara, kaleratzeko pape-ekin etorri zitzaidan nagusia. Bere aitzakia izan zen aspalditik bajan zegoen gidari bat lanera itzuli zela, eta orduan, gidariak soberan zituztela. Kontua da nik kontratu iraunkorra nuela, eta ez zegoela lotuta inoren bajarekin. Urtebete neraman enpresan, eta kaleratzeko merkeena nintzen.

Zein arazo izan zenituzten CuadraBus enpresarekin?

Pellus: Gure baldintzak normalak ziren. Kontua da kontratuan adostutako orduak ez zirela betetzen. Batzuetan, erreleboa hartu behar zidan lankidea beste zerbitzu bat ematera bidaltzen zuten, eta ondorioz, nik ordu estrak egin behar izaten nituen. Gainera, larunbatero lan egiten hasi nintzen. Beraz, baldintzak okertzen hasi ziren. Gertatu izan zaigu baita ere lanaldi osoa segi-

dan egitea, bazkaltzeko tarterik gabe. Bidaiariak ekartzen zizkituzten pintxoak jaten genituen.

Ixa kaleratzeaz gain, zuek baja hartu zenuten «gehiagizko lan kargaren ondoriozko estresagatik». Ezintasun egoeraz zundeten?

Eneko Blanco: Ixa kaleratu zutenean, kromo aldaketa bat egin zuten, bajan egon zen lankidea itzuli zelako. Guk, baina, lan gehiago egin behar genuen. Langile falta zegoen enpresan, eman nahi zituen zerbitzu guztiak eman ahal izateko. Tolosan gidari bat falta zen, denera hiru izateko, eta ikastetxeetako autobus zerbitzua eman eta Hiribuseko bi txandak egin ahal izateko. Isidoro eta biok bakarrik gelditu ginen, Tolosako eta Donostiako ikastetxeetako eta Hiribuseko autobus zerbitzuak emateko.

Pellus: Beraien egoera askoz okerragoa zen. Izan ere, asteburuetan, bidaiak izaten zituzten, Bedinormera, adibidez. Bestetik, Renferen zerbitzuetan izandako mozketak tarteko, zerbitzu gehigarria eman behar izan zuten.

Zenbait astez ez zuten jaiegunik ere izan.

Zuek noiztik zaudete enpresan lanean?

Isidoro Sistiaga: 2018tik. Tolosaldea Bus enpresaren grebaren ondoren, udalak kontratatu ninduen. Geroago, CuadraBuseko langile izatera igaro nintzen.

Blanco: 2021etik. Hiribusak izandako istripu ezagunaren ondoren, zerbitzu horretan lan egiteko aukera eskaini zidaten.

2018tik kudeatzen du enpresak Hiribus zerbitzua. Baldintzen okertzearena hasieratik eman da edo azken urteko joera izan da?

Pellus: Nire kasuan, azken urteko joera izan da. Beraiek, ordea, lehendik pairatu dute.

Blanco: Urteetako kontua da, baina azken boladan okerrera egin du.

Tartean, Tolosatik kanpoko gidariak ekarri ditu enpresak, ezta?

Blanco: Bizkaitik eta Arabatik ekartzen zituzten gidariak, baina beste batzuk ordezkatzuz, eta ez enpresara gehituz. Ondorioz,

ordu gehigarri asko egiten genituen.

Pellus: Hiribuserako kontratatu zuten gidari bat Gernikatik etortzen zen egunero.

Blanco: CuadraBusekin zerikusirik ez zuten beste enpresa batzuetako gidariak ere etortzen ziren: Lurraldebus, Aizpurua, Dbus...

Pellus: Egun bateko kontratuak egiten zizkieten. Azken finean, adabakiak jartzen aritu ziren. Beraiek jarritako aitzakia, langile bat soberan zegoenarena, ez zen existitzen.

Horrek guztiak zerbitzuan eragina izan du eta herritarrek kexatu izan dira, ezta?

Pellus: Ikaragarri okertu da zerbitzua. Bidaiariak beldurrez egoten ziren, lanera iritsiko ote ziren ala ez, etortzen ziren gidarietako batzuek ez zutelako herria eza gutzen, eta berandutu egiten zirelako. Gainera, istripu pare bat ere izan dituzte.

Sistiaga: Aldaketa ugari gertatu dira, eta etorri izan diren gidariak tentsio handiz aritu izan dira lanean, ez-jakintasunaga-



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 LEITZARAN FERRATA BIDEA

Lagun batentzat sarrera



www.leitzaran-andoain.eus

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua



Kontxako pasealekua z/g DONOSTIA
943 45 88 56
www.la-perla.net

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 EKAINBERRI museoa

Historiaurreko esperientzia konpletoa
Bi lagunentzako sarrera bikoitza



www.ekainberri.eus
943 868811
ZESTOA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera



Aranzadi Zientzi Elkarte
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

tik. Hala, lau langilek utzi zuten lana.

Bidaariekin bilera bat ere egin zenuten. Zer erantzun jaso zenuten?

Pellus: Oso ona. Bestela, kalean bidaia askok geratu izan naute, kexatzeko. Kexa batzuk nahiko kezagarriak dira, batez ere, segurtasun aldetik.

Ixa, Trianguloa plazako mobilizazioan esan zenuen zerbitzua publikoa izanik, ezinbestekoa dela kalitatezkoa izatea.

Pellus: Zalantzarik gabe, eta oraindik ez da horrela. Enpresak gidari berriak ekartzen jarraitzen du, herria ezagutzen ez dutenak. Inauterietan, adibidez, zerbitzu berezia jarri zen, eta batzuek ez zekiten ibilbidea ondo. Hori ez da langileen utzikeriagatik.

Sistiaga: Enpresa bera Amurrikoa da, eta ezbeharren bat gertatuz gero, ez dago baliabiderik. Gidaria bakarrik dago. Mugi txartela irakurtzeko gailua izorrratuz gero, Donostiara eraman beharra daukagu konpontzera, enpresak ez daukalako mantenturako zerbitzurik kontratatuta. Hilabete inguru egon izan gara gailurik gabe.

Pellus: Hiribusak matxuraren bat izaten badu, ez dago mekanikaririk hori konpontzeko. Gidariak atera behar izaten ditu babak heltzetik. Lehen urteetan, Hiribusa gasolindegia batean egon da aparkatuta.

Sistiaga: Aldagelarik eta pabiloirik gabe egon ginen. 2021az geroztik, Usabal industriagunean daukagu pabiloia.

Pellus: Baina autobusa garbitzeko eta kargatzeko makina bana daude, besterik ez.

Izan al du erantzunik elkarretaratzeak?

Pellus: Enpresak ez digu jaramonik egin.

Eta nolako harremana izan duzue udalarekin?

Pellus: Maiz egon gara kontaktuan, baina, teknikoki, prozedu-

rak beti izaten dira mantsoak. Beraiek adierazi digute egoera konpontzeko nahia, baina oraindik zain gaude. Oraingoan, mozio bat aurkeztuko dugu, bihar, udaleko osoko bilkuran.

Zer eskatuko duzue mozioan?

Sistiaga: Ixak bere lanpostua berreskuratzea, eta hirurok Hiribuseko zerbitzuari zuzenki lotzea, bidaariak hala eskatzen dutelako. Eta noski, eskubideak ez urratzea eta baldintzak betetzea.

Pellus: Ea enpresa behingoz jabetzen den Tolosan kalitatezko zerbitzua bermatu behar duela, herriak merezi duelako.

Blanco: Eta posible da, horretarako baliabideak dituelako.

Zein izan daiteke egoera honen konponbidea?

Pellus: Kudeaketa erabat publikoa izatea, eta udalak beregain hartzea. Badakit ez dela erraza, baina onena da.

Sistiaga: Udaletxeak kontrolatu beharko luke zerbitzua. Enpresak ez ditu betetzen 2018an zerbitzua esleitu zenean hitzartutako zenbait baldintza.

Pellus: Geltokietan panelak jartzea, adibidez. Hiribusa bera beste zerbitzu batzuetarako ere erabili du enpresak, eta lotsagarria da zerbitzu publikorako ibilgailu batekin dirua lortzea.

Zuk, Ixa, baliogabeko kalera-tzea eskatu zenuen eta etzi daukazu epaiketa.

Pellus: Ez da erraza izango. Gaur egun, epaileak ez dira *bus-titzen*, eta enpresak indar handiagoa izaten du langileak baino. Nik nire baliabideak erabiliko ditut. Nire lanpostua dela eta hori galtzeko ez dudala ezer egin aldarrikatuko dut, baita hori mantentzea nire eskubidea dela ere. Eskerrak eman nahi dizkiet langide eta erabiltzaileei, eman didaten babesagatik.

Blanco: Bidegabekeria bat da. Gutxi gara, denok daukagu galtzeko asko, baina ezin dugu bere horretan utzi.

'Etxebizitza jokoak' eta 'Kontxitako barandilla' inauterietako onenak

'Galgo' eta 'Matxinsalto' karrozek eskuratu dituzte bigarren eta hirugarren sariak; sari modura, hiru karrozek kokalekua aukeratu ahal izango dute datorren urteko inauterietan

Erredakzioa

2025eko Tolosako Inauterietako Karroza eta Konpartsen Lehiaketak baditu saridunak. Karrozen kasuan, hiru onenak izendatu dira, datorren urtera begira lekua hautatzeko aukera izaten baitute sari modura; konpartsen kasuan, berriz, onena aukeratu da.

Karrozen lehen saria *Etxebizitza jokoak* izenekoak jaso du. Tolosan gazteen artean pil-pilean dagoen gai bat ardatz hartuta, gazteek etxebizitza bat lortzeko duten zailtasuna irudikatu zuten, egun oso ezaguna den tele-sail bati erreferentzia eginez. «Belaunaldi desberdinetako ikusleak bildu zitzaizkien ingurura, antzezpen originala eta euskaraz egindakoa ikustera. Aipamen berezia merezi du eraikitako panpina erraldoiak», adierazi du lehiaketako epaimahaiak.

Karrozen bigarren saria, berriz, *Galgo*-rentzat izan da. Tolosan historikoa izan zen Galgo paper fabrika irudikatu zuten, epaimahaiaren iritziz, «modu oso originalean, mozorro, kolore eta arropen diseinu oso landuarekin». Herriarekin guztiz lotuta dagoen gaia hartuta, koreografia «originalak, deigarriak eta bereziak» egin zituztela esan dute.



'Etxebizitza jokoak' karroza irabazlea. J. MIRANDA

Paper fabrikako langileak, ibaiertzeko arratoiak eta kutsaduren ondoriozko piztia bitxiak irudikatu zituzten, besteak beste.

Karrozen hirugarren saria *Matxinsalto*-rentzat izan da. Ikusleek parte hartzea bilatu zuten, barraketan ohikoa den matxinsalto bat irudikatuz. «Oso ondo eraikitako matxinsaltoa izan da eta ikusleek oso ondo pasa dute jira eta biraka. Karroza txikiago batekin ere, ikuskizun ederra egin daitekeela erakutsi digute», esan du epaimahaiak.

Bestalde, konpartsen kasuan, lehen saria *Kontxitako barandilla*-rentzat izan da. Donostiako

Kontxako barandako ballet dantzariak irudikatu zituzten Tolosan. «Umorez baliatutako ikuskizuna egin dute, kalez kale. Mikrofona eskuan hartuta, ikusleak dantzara gonbidatu dituzte, tutuak jantzi eta lotsak alde batera utziz», adierazi du epaimahaiak.

Bada, sari modura, hiru karrozek kokalekua aukeratu ahal izango dute datorren urteko inauterietan; karrozen lehiaketako lehen sariaren irabazleak, bere aldetik, 20 pertsonarentzako afaria ere jaso du. Konpartsa irabazleak ere afari bat jaso du sari gisa.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Uzturre Foroa aurkeztu dute

Egungo gizartearen erronkei eta lehentasunei buruzko eztabaidak eta hausnarketak bultzatuko dituzte; lehen ekitaldia Aitor Estebanen hitzaldia izango da apirilaren 1ean

Leyre Carrasco Tolosa

Uzturre Foroa (Uzturre Foroa Elkartea - Tolosaldea. Egungo gizartearen erronkak eta lehentasunak da elkarleen erregistroan izena emandako izen osoa) aurkeztu dute, eta duela 20 urte baino gehiago Tolosan egin zen ekimen baten lekukoa hartzen duen elkarte berri gisa definitu dute.

Jokin Bildarratz Tolosako alkate ohia eta elkarte bozera-maileak azaldu du elkartearen izena tolosar buruzagi abertzale historikoak (1912-1993) utzitako legatuari dagokiola. «Uzturrek bere belaunaldiko kideekin batera oso momentu zailak bizi izan zituen, baina ahotsa altxatu eta errebelatu egin zen nolabait. Gure ardatza eta iparra da giza duintasuna eta printzipio demokratikoak defendatu zituelako, eta beraz, horiek defendatzea guretzat ere ezinbestekoa da».

Uzturre Foroa Tolosalde mailako erakundea izango da, eta eginkizun nagusia egungo gizartearen erronkei eta lehentasunei buruzko eztabaidak, hausnarketak eta ekarpenak egitea izango dela zehaztu du Bildarratzek: «Gaurkotasunezko gizarte eta politika gaiak jorratuko dira, bai globalak, nazio mailakoak, toki-koak edota eskualdekoak, gure gizartearentzat oraina eta etorkizuna dakarten erronkak islatzen dituztenak, Europaren eta europismoaren erronka eta lehentasunen esparruan».

Helburu horrekin, hitzaldiak, elkarriketak, mahai-inguruak, jardunaldiak, kongresuak eta «interese handiko beste edozein



Jokin Bildarratz Uzturre Foroa osatuko duten beste kide batzuekin batera, atzoko aurkezpen ekitaldian. LEYRE CARRASCO

jarduera dibulgatzaile» antolatzeke asmoa dute. Jarduera horiekin, «nazionalismo demokratikoaren memoriari eta helbueri buruzko pedagogia sozial eta politikoa» bultzatu nahi dute, «bere ibilbide historikoren eta gure gizartearentzat lortutako lorpenen ikuspegia emanez».

Halaber, hausnarketa, presta-

kuntza, deliberazio eta parte hartze sozialerako guneak eraiki nahi dituzte, «pluralismoaren defentsan oinarritutako kultura politikoa sustatzeko, eta iritziz aniztasuna eta, nola ez, adierazpen askatasuna kontuan hartuta, politika eta gizartearen arteko harreman hori gardentasun osoz garatuz». Horrez gain, etorkizunean prestakuntza ikastaro eta

jardueren eskaintza sustatzea eta herritarrek parte hartzeko dinamika antolatzea, eta edozein esparrutako erakundeekin lankidetzan aritzea ere aurreikusi dute.

Ekitaldiak antolatzen joango dira eta dagoeneko lehena iragarri dute. Hurrengo asteartean, apirilaren 1ean, *Gure herriaren erronkak eta lehentasunak* izenburupean hitzaldia izango da, 19:00etan, Topic-en. Bertan izango da asteburu honetan Eusko Alderdi Jeltzaleko buru izendatuko duten Aitor Esteban. Pilar Insausti kazetariak gidatuko du elkarriketa. «Asteartean bertan Aitor Esteban gurekin egotea aukera ona dela uste dut Tolosarentzat, Tolosaldearentzat, eta baita euskaldunentzat ere», gaineratu du Bildarratzek, interesa duen herritar oro gonbidatuz. Foroaren inguruko informazio gehiagorako Uzturreforoa.eus webgunea izango dute eskura herritarrek.

Manifestazioak egingo dituzte eskola publikoetako irakasleek

Gaur, Bilbon, Gasteizen eta Donostian egingo dituzte, 11:30ean hasita; eta bihar Donostian egingo dute berriro, ordu berean hasita

Leyre Carrasco

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko eskola publikoetako irakasleak grebara deituta daude, eta deialdiari eustea erabaki dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin atzo goizaldean izan dituzten negoziazioetan. Honela, gaurkoa sei eguneko grebaldian bigarrena izango dute langileek.

Gaurko hiru manifestazio dituzte antolatuta: Bilbon, Arriaga plazatik abiatuta; Gasteizen, Bilbo plazatik hasita; eta Donostian, Bulebarretik aterata. Guztia 11:30ean hasiko dira. Eta bihar, Donostian, 11:30ean, Bulebarretik aterako da. Hurrengoan, berriz, astearterako eta asteazkenerako dute deia eginda. Steilas, LAB eta ELA eta CCOO sindikatuek egin dituzte deialdiak, eta 27.000 irakasle inguru daude grebara deituta.

Sindikatuek gogorarazi dute 15 urte daramatzatela lan hitzarmena eguneratu gabe: «Horrek eskoletan gure lana modu egokian egitea galarazten digu». Irakasleen eskaera nagusiak aipatu dituzte: lan zama eta burokrasia gutxitzea, langileen gazteberritze planari ekitea, galdutako erosahalmena berreskuratzea, enplegua egonkortzea eta abar. Alor horietan guztietan «edukiak eta zehaztapenak» eskatu dituzte.

Sindikatuek uste dute greba dinamika «mugiarazi» egin duela Jaurlaritza, eta, horregatik, bide horretatik jarraitzeko deia egin diete irakasleei: «Greba eta mobilizazioa da bidea, ez dugu bestelako aukerarik. Orain da momentua».

Urtarrilean eta otsailean beste lau egunetan egin zituzten lanuzteak eskola publikoetako irakasleek. Orduko hartan mobilizazio dinamika zabalago batean jardun zuten: Haurreskolak Partzuergoko langileek eta eskoletako garbiketa eta sukalde zerbitzuetakoek ere egin zuten greba. Igaro asteotan, ordea, sektore horiek akordioak lortu dituzte Jaurlaritzarekin.

GOIKOETXEA
sagardotegia
Sagardo Naturala

ZABALIK

Egin zure erreserba:
609 714 203
943 68 21 75

Elbarrena Kalea 9
Aroztegi baserria
LIZARTZA



Alegiako zineman eta Inaxio Begiristain kultur etxean egingo dituzte, besteak beste, jarduerak. Irudian Alegiaren erdiguneko kale bat. ENERITZ MAIZ

Igandean bertsolari txikienak igoko dira oholtza gainera

Alegian egingo dute Gipuzkoako bertso eskolen eguna; elkar ezagutzeko eta bertso zaletzeko egun egokia dela dio Beñat Azaldegik Bertsozale elkarteko kideak

Erredakzioa

Igandean egingo dute Alegian Gipuzkoako bertso eskolen eguna. Bertsozaletasuna ardatz, lurralde osoko 10 eta 14 urte bitarteko 160 bat haur bilduko dituzte txintzarrien herrian. Hainbat jardura dituzte prestatuta, besteak beste, bi hitzordu Gelatik Plazara ekimenaren barruan, Lehen Hezkuntzako mailakoen finala eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailakoen kanporaketa.

«Azken egitekoak bukatzen ari gara, baina gutxi gorabehera

prest daukagu guztia», horrela hitz egin du Beñat Azaldegik Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko sustapen arduradunak, eta gehitu «egun berezia» izango dela: «Gaztetxo kopuru polita bilduko dugu eta egun berezia izango da Alegiarentzat ere. Gure hitzorduaz gain binakako pilota txapelketako finala ere izango dute-eta».

GOIZETIK ARRATSALDERA

Goizeko hamarrak aldera bilduko dituzte Gipuzkoako hainbat herritako haurrak eta, lehenengo, elkar ezagutzeko jolas batzuk

egingo dituzte. Ondoren etorriko da Azaldegiren hitzetan «eguneko plater nagusia»: Gelatik Plazara ekimenaren barruan bi hitzordu izango dituzte, batetik, LH mailakoen finalak; eta, bestetik, DBH mailakoen kanporaketa saioa.

Horren ondotik bazkaldu eta, arratsaldean, bertsolaritzaekin lotutako tailerrekin bukatuko dute egitaraua.

LEHENENGO OHOLTZA SAIOAK

Gelatik Plazara egitasmoaren barruan hamar saio egin dituzte 10 eta 14 urte bitarteko haurrekin,

eta Azaldegik azaldu du gazteek oholtzarekin duten «lehen harremana» dela ekimena: «Eskola arteko txapelketaren aurretik, hezkuntza araututik kanpo gazteek plazarekin duten lehen harremana da».

Sustapen arduradunak adierazi du bederatzi eremutan banatzen dutela Gipuzkoa, eta lekuz leku biltzen dituztela bertako gazteak saio banatan: «Saio hori tokian tokiko areto txikitik egingo da. Tolosaldekoa, adibidez, Villabonako Subijana etxean izan zen. Saio horietatik irabazle bat ateratzen da eta irabazle ho-

rien arteko finala egingo da bertso eskolen egunean. Egia esan oso gustura gaude emaitzarekin».

HELBURU ETA ZUBI

Gipuzkoako bertso eskolen egunaren helburu nagusietako bat «zaletasun bera duten gazteak biltzea eta elkar ezagutzea» dela ere nabarmendu du Azaldegik: «Finean, elkar ezagutzeko eta gazteak bertso zaletzeko egun egoki bat izatea da xedea».

Eta, hari horri tiraka, azaldu du, baita ere, «zubi lana» egiteko balio duela Gelatik Plazara egitasmoak: «Gelatik Plazara bukatzen zaien urte berean edo hurrengoan hasten da eskola arteko txapelketarako aukera». Aurtun, eskola arteko txapelketan 25 gazte aritu dira bertsoan, eta apirilaren 4an jokatu dute finala, Azpeitian.

Eskualdeko parte hartzeari dagokionez, Amasako kanporaketan Haritz Murua irurarrak eta Jare Bengoetxea lizartarrak kantatu zuten, baina ez ziren finalera pasa. Bertan izango da, berriz, Danel Etxeberria tolosarra, Errezilgo kanporaketan kantatu eta saioa irabazi ez bazuen ere, puntuazioz sailkatu zelako.

ORAIN ARTEKOAZ, GOGOBETETA

Eskola arteko txapelketaren inguruan gogobeteta hitz egin du Azaldegik: «Oso ederra izaten ari da, batez ere elkarteak-eta betetzen ari direlako». Zehaztu du, halaber, ez dela «ohiko bertso afaria» izaten: afaldu egingo dute lehenik, eta ondoren izaten da saioa. «Afariak ondo doaz, eta giro ederra izaten ari da. Espero dugu Azpeitian ere horrela izango dela».

Igandeko Alegiako hitzordura begira, berriz, gogorarazi du ekitaldiak zineman eta kultur etxean izango direla eta haurrentzako izen-ematea itxita badago ere, gurasoak bertaratu daitezkeela: «Animatu daitezela, egun polita izango da-eta».

zozketa irekia

Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuekin osatutako Errigorako sorta beltza



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

zozketak

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu



OTS Haatik dantza konpainiaren ikuskizuna

Martxoak 28, ostirala • 18:30 • Tolosako Leidor aretoa

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu



Masustondoen patioa antzezlan

Martxoak 30
igandea • 19:30
Villabonako Gurea antzokia

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Unai Ugartemendia Asteasu

Hilabete gogorra izan da martxoa Iker Elizegi (Asteasu, 2000) pilotariarentzat. Lau urte eta erdi pilotari profesional moduan ibili eta gero, larunbatean jokatuko du azken partida Beotibarren Unai Alberdi laguna ondolan duela. Azken egunetako egun gaziak ahaztu nahi ditu, eta amaiera polit batekin amesten du.

Lasai eta irribarretsu azaldu da hitzordura Elizegi pilota eskuan duela. Hitz errazekoa da eta aho bizarrak gabe hitz egin du azken partidaren atarian.

Gogorrak izan al dira azken egun hauek?

Ez dira batere egun errazak izan, baina, halere pentsatzen dut uste baino hobeto eraman dudala. Lehen bi egunak nahiko eskasak izan ziren, baina, behin kontratua etetera zihoazela ikusi nuenean, Ander Imazekin, Pablo Berasaluzerekin eta Jon Mandiola lagunekin bazkaldu nuen, eta burua ahal nuen neurrian deskonektatzen saiatu nintzen. Etxera itzultzean errealitate kolpe hori sentitu nuen, baina inguruko babesarekin nahiko ondo eraman dut.

Noiz hasi zinen hatzeko minekin?

2021-2022 denboraldia nire inoizko garairik onena izan zen mailari dagokionez. 2022ko abuztuaren Sean Gasteizen jokatutako partida batean, bigarren erditik aurrera ezkerarekin soilik jo niezaiokeen pilotari. Handik aurrera, eskuetako min soil bat zena, hatzetara ere igaro zen, eta geroztik arrastaka ibili naiz. Errekuperazio txiki bat izan nuen denbora batean, baina, ondoren, binakako txapelketa jokatutako nuen Iraitz Zubizarretarekin eta oso gogorra izan zen eguraldiari dagokionez. Geldialdi asko egin nituen txapelketan zehar, eta azkeneko hatz guztiak txurrituta amaitu nuen. Neurriak hartu behar nituela konturatu nintzen. Gauza ezberdinak probatu nituen, baina, ez nintzen gustura gelditzen, eta minak hor jarraitzen zuen. Jokatzan jarraitu nuen halere, baina 2024ko irailean gelditzea erabaki nuen. **Eta, azkenean ebakuntza egitea erabaki zenuen.**

Bai. Hasteko, urriaren 3an egin nuen ebakuntza Bartzelonan. Irailaren 24an azken partida jokatutako nuen San Mateotan (Logroño, Errioxa), eta hirugarren negua izatera zihoan hatzekin izorratuta. Argi neukan horrela ezin nuela jarraitu. Iñigo Simon

«Gertutasun handiagoa espero nuen Baikoren partetik lesioa eta gero»

**IKER ELIZEGI
PILOTARIA**

2020an egin zuen debuta pilotari profesional moduan, eta Baikok jakinarazi berri dio ez diola hitzarmena berrituko; larunbat honetan jokatuko du azken partida Tolosako Beotibar pilotalekuan



U.A.

nion etorkizunean pentsatzen jarri behar nuela, eta bizitza antolatzeke garaiz nengoela. Lasai egoteko aipatu zidan, oraindik denbora bazela eta. Berdin berdindu utzi ninduen. Otsail amaieran hitz egitekotan gelditu ginen. Ikusirik berriz ere ez nindutela deitzen, ni jarri nintzen berriz harremanetan haiekin. Ebakuntza egin nuenetik, gertutasun falta handia somatu dut nagusiekiko. Enpresa handi bat izan balitz sikira, bale, baina geurea oso enpresa txikia da, eta horrelako gauzek mina egiten dute.

«Ez dira egun errazak izan, baina inguruko babesarekin nahiko ondo eraman dut»

Nola izan zen dei hura?

Nire egoera berean zeuden Gorka Ugartemendiak, Asier Agirrek eta Joanes Bakaikoak bi egunen buruan berritu zuten kontratua Baikorekin. Hurrena ni izango nintzela pentsatu nuen, eta egun bat itxarotea erabaki nuen. Ez nuen deirik jaso, ezta hurrengo egunetan ere. Gauzak beltz ikusten hasi nintzen. Beste pilotari batzuen aurrekariak ere banituen horrelako egoeratan, eta berriz ere nik deitzea erabaki nuen. Garairi berriz deitu nionean, ea urduri nengoen esan zidan oso tonu ironikoan. Jada esperantza guztiak galdu nituen. **Aimar Olaizolarekin ere hitz egin omen zenuen gerora.** Proba fisiko batzuetarako deitu ninduten. Aurreko egunetan ondoezik sentitu nintzen, eta Olaizolari deitu nion horrela ezingo nuela joan esanez. Lasai egoteko esan zidan, aurrerago egingo nituela. Handik bi ordura, Garaik deitu ninduen hurrengo egune-

an bere bulegora joateko esanez. Argiune bat ikusi nuen orduan. Ez nuen sinisten bestela, egun berean probak egin behar izatea eta handik ordubetera kalera tzea. Horretara iritsiko ziren ez nuen pentsatzen. Pentsatzen nuen, horrela balitz Olaizolak berak aipatuko zidala kaleratua izango nintzela eta ez joateko proba fisikoak egitera. Zoritxarrez horrela izan zen. Hurrengo egunetan Olaizolak eta Garaik, bata besteari baloia pasatzen joan ziren. Batak bestearen erabakia zela esaten zidaten. Oraindik ez dakit nork erabakita kaleratu nauten.

Zein izan dira kontratua ez berritzeke arrazoi nagusiak?

Bajan 300 egun pasa nituela eta gainera emaitzak txarrak izan zirela aipatu zidan Garaik. Ni izan naiz lehena aipatzen, nire maila ez dela onena izan azken bi urte hauetan, baina lesio larri bat zegoen atzean. Nik, aldiz, pena izugarria sentitzen nuela aipatu nion. Bi urte eta erdi izugarri sufritu ondoren, berriro ere ez nuela aukerarik izan pilotan jarraitzeke. Horrelako lesio bat eta gero, edozein pilotarik denbora behar du, eta niri ez didate horretarako denborarik eman. Nire buruarekin lasai noa. Nire eskuetan zegoen guztia egin dut.

«Horrelako lesio bat eta gero edozein pilotarik denbora behar du eta niri ez didate eman»

Lau urte eta erdi egin dituzu pilotari profesional bezala. Larunbatean jokatuko duzu azken partida. Nola imajinatzen duzu?

Oso txarra naiz horrelako gauzak imajinatzen. Azkar emozionatzen naizen horietakoa naiz, eta gainera asko maite dudana jendea izango dut ondoan. Eguna iristeko gogo handia daukat. Unai Alberdi laguna izango dut ondoan, eta ilusio berezia egiten dit azken partida harekin jokatzeak. Berak ere asko sufritu du. Parean, beste bi lagun handi izango ditut gainera, Iraitz Zubizarreta eta Gorka Ugartemendia. Ez dut ezer berezirik espero partidaz, eta oroitzapen handiak izango ditut buruan. Dena ondo amaitzea espero dut.



Biharko
'Mendikatea' saioko
protagonista Iker
Elizegi izango da:
Ataria.eus

June Aranburuk hiru garaipen lortu ditu Espainiakoan

Iraupen eskiko Espainiako Txapelketak izan dira eta Alpino Uzturrekoak estilo librean eta klasikoan irabazteaz gain, team esprintean Libe Currasekin batera garaipena lortu du

Erredakzioa Tolosa

Asteburuan iraupen eskiko Espainiako Txapelketak egin dira Larra-Belaguan, eta bertan izan dira Alpino Uzturre elkarteko eskiazaileak. June Aranburuk hiru garaipen lortu ditu, horietako bat Libe Currasekin batera.

Ostiralean libre modalitateko probak egin ziren, eta gizonezkoen FIS kategorian 17. postuan amaitu zuen Hodei Juaristik, 21. postuan absolutu mailan, eta laugarren 20 urte azpikoan. Emakumezkoen FIS kategorian Magali Lekue 11. izan zen, absolutu mailan 13. eta 18 urtez azpikoan seigarren amaitu zuen. 16 urtez azpiko nesketan, June Aranburu izan zen irabazle. Eguraldi txarra egin zuen, eta kategoriatxikienak bertan behera geratu ziren.

Larunbatean klasiko eran egin ziren probak. Hodei Juaristi 11. izan zen FIS kategorian, 12. absolutuan eta bigarren 20 urtez azpikoan. Magali Lekue 9. amaitu zuen FIS kategorian, 10. absolutuan eta seigarren 18 urtez azpikoan. June Aranburu irabazle



June Aranburu eta Libe Curras, Team Esprint proba irabazita. ALPINO UZTURRE

izan zen 16 urtez azpikoan, eta 14 urtez azpikoan Libe Curras 2. postuan iritsi zen eta Iker Aranburu 11. izan zen.

Igandean Team Esprint modalitatean, absolutu mailan 10. egin zuten Igor Aranburuk eta Hodei Juaristik, eta 5. absolutu gizonezkoetan. Absolutu emakumezkoetan, Magali Lekue eta Naroa Amantegi zazpigarren izan ziren. 16 eta 14 urtez azpiko nesken mailan, lehenengo postua lortu zuen Libe Curras eta

June Aranburu bikoteak. Iker Aranburuk Izal taldeko Andde Elizbururekin parte hartu zuen 16 eta 14 urtez azpiko mistoan, eta bederatzigarren izan ziren.

IMANOL ROJO, 37, POSTUAN

Bere aldetik, igandean, Imanol Rojo Finlandiako Lahti herrian lehiatu zen iraupen eskiko Munduko Kopako 50 kilometroko klasiko proban, eta 37. postuan helmugaratu zen. Denboraldiari amaiera eman dio tolosarrak.

Berdegunekak

Aulkitik

Aiheko Urria

Tolosa CF, 3. Federazio maila

Aurrenekoz ATARIA-ko zutabea idatzi nuen Karla Lekuonara egin genuen bisita. Beti da polita Gipuzkoako talde garrantzitsuekin norgehiagokan aritzea. Beti izan dira emakumeen futboleko aitzindari, eta oihartzuna sortu izan dutenak gure futboleko. Partida ederra ikusi zuten gerturatu ziren guztiek. Orain dela gutxi berritutako zelai artifiziala testigu. Ederki geratu zaie berdegune berria aldaketarekin, espazioa, entrenamenduen antolaketa, lesioen murrizketa, eta joakoaren berariazko ezaugarriak hobetuko dituela seguru naiz.

Guk ere aspaldian badugu eztabaidagai hau gure inguruan dantzan. Berdegune berdina nahi dugu Berazubini. Berazubi izeneko estadio bitxi eta erromantiko bat dugu herriaren erdi-erdian, atletismoko pista eder batez inguratutako futbol zelai natural bat erdigunean duelarik. Altuera ederra duten harmaila batzuk albo batean, hila batean pare bat partida ikusteko zain. Guri partida gehiago jokatzea gustatuko litzaiguke, baina badirudi gaur egungo belardi

naturalak ez digula baimenik ematen. Ea beste norbaitek baimentzen digun hainbeste desio dugun aldaketa hori, eta ehunka futbol zalek erabil dezaketena ia-ia egunero instalakuntza eder hori.

Partidara bueltatuz, lehen zatian nagusi tolosarrak berdegunean eta bikain eraman zuten aurrera Oiarzun mendean hartzeko taldeko entrenatzaileak eginiko planteamendua. Hala ere, futboleko gehien balio duena gola dela esaten dute, eta halaxe da, jokoan gehiago izanik, ez genuen baloia sareetara sartzea lortu eta berdinketarekin erretiratu ginen aldageletara atsedenaldian.

Dinamika berdina bigarren zatian, gu agian indar pixka bat gutxiagorekin, baina arazo handirik gabe. Partida amaitzeko minutu gutxi batzuk faltan, *akats* batek beste bat ekarri zuen eta gure atezaina kanporatua izan zen. Kolokan jarri zen ordu-ra arte egindako lan guztia baina beraiek ere ez zuten lortu gure atea zulatzea.

Amaieran puntu banaketa Oiarzunen eta sailkapeneko gune lasaian mantentzen dugu taldea, jada datorren denboraldia prestatzen hasteko irrikaz eta sortu dugun familia giro eder honi segida emateko intentzioaz. Aupa Tolosa, aupa urdinak!

Gipuzkoako Halterofilia Txapelketa, larunbatean, Amasan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Danok Danena halterofilia taldeak antolatuta, Gipuzkoako Txapelketa egingo da larunbat honetan, hilaren 29an, Amasako udal pilotalekuan. Bertan parte hartuko dute teknikan lehiatzen diren pultsulariak, eta 15 eta 17 urtez azpikoak.

Lehiaketa 09:00etan hasiko da, teknika mailakoekin, eta gero bi txanda izango dira. Lehenengo 10:30etan hasiko da eta bigarren 12:00etan. Maila handiko pultsulari gazteak ikusteko aukera izango da Amasako udal pilotalekuan.

Zabalik dago UTT Erronka mendi lasterketaren izen ematea

Erredakzioa Zizurkil

Tolosaldean Ultra Trail Erronka edo UTT Erronka mendi lasterketa egingo da lehenengo aldiz aurten. Irailaren 13an izango da, Iruran hasi eta bukatuta. Tolosaldeko hainbat herri eta menditatik igaroko da ultra lasterketa, 77 kilometro dituen eta 9.200 metroko desnibel metatua duen ibilbidea osatuz.

Dagoneko izena eman daiteke, *Kronoak.com* webgunean sartuta. Ibilbide osorako 450 dortsal daude. Erreleboka ere egin daiteke proba eta horretarako 50 dortsal egongo dira.

Axier Artola garaile, UZ Trail lasterketako proba motzean

Erredakzioa

Igandean egin den UZ Trail mendiko lasterketan eskualdeko hainbat korrikalari izan dira podiumean. 12 kilometroko proban Axier Artola amezketarrak lehenengo postua lortu zuen gizonezkoetan, eta bere atzetik Beñat Katarain zegamarra eta Pablo Alvarez gasteiztarra iritsi ziren. Eider Zubeldia amezketarra hirugarrena izan zen emakumezkoetan, eta bere aurretik Malen Osa oñatiarra eta Ainhua

Unanue urretxuarra helmugaratu ziren. 23 kilometroko proban, berriz, Sarah Ugarte tolosarra bigarren izan zen, eta bere aurretik Ainara Uribarri oñatiarra eta bere ondoren Ainhua Intxausti segurarra helmugaratu ziren.

Orain arte egin diren probak kontuan hartuta, Goierri Kopa Sprint emakumezkoetan, Eider Zubeldia doa sailkapenaren buru. Kopa berean eta gizonezkoetan, Axier Artola bigarren postuan dago. Goierri Kopa Trail-ean, gizonezkoetan, Aimar Es-

teban zizurkildarra lehenengo postuan dago. Hain justu, UZ Trail proban, 23 kilometrokoan, zortzigarren iritsi zen korrikalari zizurkildarra.

AINHOA GARIKANO, BIGARREN

Igandean ere Donostia eta Hondarribia arteko Talaia Bidea mendi lasterketa egin zen, eta bertan Ainhua Garikano tolosarra bigarren izan zen. Probak 30,8 kilometroko distantzia zuen, eta desnibel positiboa 1.300 metrokoa.



ASTEAZKENA, 2025EKO MARTXOAK 26
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Eider Aierbe Isasti
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 26

AGENDA

Deialdiak

Amezketak. Festak antolatzeneko bilera. Kultur etxean, 19:00etan.
Tolosa. Gipuzkoako orkideak II. Euskaraz. Biodibertsitate gunean, Antxon Bandres Bidaiarien Txokoa, 18:00etan.
Tolosa. Berdintasun Kontseiluak bilkura egingo du, osoko bilkura aretoan, 18:00etan. M8aren balorazioa eta Berdintasun sailaren diru laguntzak aztertuko dira.
Tolosa. Ahoz Aho jaialdia: Larraitx Urruzola (Euskal Herria/Galizia). Euskaraz. Umeentzat. Berazubiko auzo elkartean, 18:00etan.
Tolosa. Festak antolatzeneko lehen bilera. Udaletxean, 18:30ean.
Tolosa. Galtzaundiren martxoko tertulia literarioa. Kae Tempesten Antzinako berri-berriak liburua aztertuko dute. Kultur etxean, 19:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
14:00. Errezetak.
18:00. Desafioa.
20:00. Hari naizela.

28 KANALA

10:30. Ander Gortazar arkitektoari elkarrizketa.
13:30. Tolosaldea gertutik.
16:30. Landaola sariak.
20:00. Berbagai - Eskola kirola.
21:30. Tolosaldea gertutik.
22:00. Haritik tiraka - Onkologia 360°.

FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Egunekoa. Inaki Olarreaga. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
Tolosa. Gauekoa. E. Bengoetxea. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Goizean hodeiak oso ugariak izango dira eta oraindik euri kontuekin jarraituko dugu. Zaparrada batzuk botako ditu, nahiz eta, ez diren mardulak izango eta aurreko egunekin alderatuta ez duen hainbeste euri egingo. Arratsaldean zehar atertzeko joera hartuko du, egun amaieran atertzeko duelarik. Ipar-haizeak bizi jotzen jarraituko du. Tenperaturak koska bat gora egingo du, 13-15 graduan joz goia.



Bihar. Goizean, berriro ere, hodeitsu egongo da zerua eta euri giroa nagusituko da. Zaparradak sarri botako ditu, nahiz eta, ez diren oso indartsuak izango eta ez den euri litro kopuru handirik espero. Eguerditik aurrera euria gutxitzen joango da, azken orduetan nahiko ateri geratuz. Ipar-haize biziak joko du eta tenperaturak antzeko balioetan jarraituko du, 13-15 graduan joz goia.

Tolosaldeko Atariak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Errenta aitorpena euskaraz egiteko deia

UEMAk eta hainbat erakundek elkarlanean abiarazi dute kanpaina; errenta euskaraz egiten dutenen kopurua gorantz doa

Erredakzioa

2024ko ekitaldiko errenta eta ondarea aitortzeko kanpainari ekingo diote Hego Euskal Herriko foru ogasunek apirilarekin batera. Horiekin bat eginez, UEMAk, bertako kide diren udalekin eta foru ogasunekin elkarlanean, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiaraziko du aurten ere, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezen bultzatu nahian.

Gipuzkoan apirilaren 8an hasiko da errenta aitortzeko epea, autolikidazio proposamenak eta internet bidezkoak egun batzuk lehenago egin daitezkeen arren. Eekainaren amaiera aldera arte egin ahal izango dira aitorpenak.

UEMAk, ohi bezala, udalekin eta hainbat erakunde publikorekin elkarlanean bideratzen du errenta euskaraz egiteko kanpaina, eta foru ogasun, eskualde edo udal elkarte bakoitzak mokatzen du bere beharren arabera. Gipuzkoan, aurten ere, *Ogasunarekin euskaraz* leloa erabiliko du aldundiak, eta UEMAk ere halaxe gehituko du Gipuzkoako udaletara zabaldutako euskarri guztietan.

Errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua urtez urte gorantz ari den arren, errealitate



Errenta aitorpena euskaraz egitera bultzatu du UEMAk beste behin. ATARIA

soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik, eta horretan eragin nahi dute aurten ere UEMAk eta udalek, herritarrei administrazioarekin ere euskaraz aritzeko deia eginez.

Egoera soziolinguistikoa, ordea, ez da herritarren joera erakusten duen aldagai bakarra. Batzuetan alde handia dago euskaldun indizearen eta errenta euskaraz egiten dutenen artean. Dena dela, udalerririk euskaldunen egiten dira aitorpen gehien euskaraz, zenbakiak eta ehunekoak oso aldakorak diren arren lurralde batetik bestera.

Gipuzkoaren kasuan, Zerain (%72), Oresa (%67), Ataun eta Ba-

liarrain (%62), Amezketa (%60) dira iaz euskaraz errenta aitorpen gehien egin zituzten herriak, ehunekoetan.

Tolosaldeari begiratuta, ikus daiteke, oro har, herri txikietan errenta euskaraz egiten dutenen kopurua handiagoa dela. Hala, 1.000 biztanletik beherako herrietan, iaz errenta euskaraz egin zutenen ehunekoa %40tik gorakoa da. Belauntza (%38), Ikaztegieta (%36), Larraul (%39) eta Leaburu-Txarama (%37) dira salbuespenak. Kontrara, biztanle kopuru handiena duten herrietan daude errenta euskaraz egin dutenen ehuneko baxuenak, Tolosa izanik guztietan txikiena, %29rekin.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez

variTek

Denbora daramazu barizeengatik sufritzen eta konponbide bat nahi duzu?

Barizeak kirurgiarik gabe tratatzeari buruzko zalantzak dituzu?

Varitek taldeko mediku espezialistok zure zalantzak argituko ditugu Tolosan egingo dugun **barizeei buruzko jardunaldian**.

Martxoaren 27an izango da, 18:30ean
Tolosako kultur etxean (Trianguloa plaza).

Sarrera doan.
Informazio
gehiago:

